



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 19/2025 FORU DEKRETUA, martxoaren 20koa, uztailaren 11ko 126/2006 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru dekretu hori Bizkaiko Foru Aldundiak, behin betiko desagertu daitezen, egiten duen hiri hondakinen tratamendu zerbitzuari dagokion prezio publikoa aplikatzeari eta beraren erregulazioa garatzeari buruzkoa da.

Uztailaren 11ko 126/2006 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak hiri hondakinak behin betiko desagertzeko egiten duen tratamendu-zerbitzuari dagokion prezio publikoa aplikatzea erabaki zen eta haren erregulazioa garatu zen.

Foru dekretu hori behin baino gehiagotan aldatu da tratamendu berezitua duten hiri hondakin batzuen prezio publiko berriak ezartzeko, adibidez hondakin mota hauetan: masan bildutako hondakinak, berrerabiltzeko tratatzen diren hondakin txikiak, berrerabiltzeko eta birziklatzeko diren hondakin handiak edo konposta egiteko tratatzen diren hondakin organikoak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren apustua da hiri hondakinen etorkizuneko kudeaketak kalitatezko zerbitzua ematea herritarrei, Bizkaiko Lurralde Historiko osorako ahalik eta kostu homogeen eta doituenaekin, eta ingurumena babesteko babes-maila handienekin, betiere indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen betebeharrak eta garapen iraunkorren printzipioak bete ahal izateko.

Aurrekoa garatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak, berak bakarrik edo beste batzuekin lankidetzan, martxan jarri ditu tokiko eskumeneko hondakinen tratamendurako instalazioak, hondakinak kudeatzeko dagoen hierarkia errespetatuta, hondakin horiek ahalik eta ondoen aprobetxatzeko.

Goian adierazi den bezala, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 11ko 126/2006 Foru Dekretua hainbat aldiz izan da aldatua zenbatekoak eguneratzeko. Azken aldaketa 220/2023 Bizkaiko Foru Aldundiaren, abenduaren 18koa, Foru Dekretua-ren bidez egin zen.

Foru Dekretu honen bidez, 2025eko apirilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko hondakinen tratamenduagatik prezio publikoak eguneratzen dira.

Foru-dekretu hau izapidetzeko, kontrol ekonomikoari buruzko txostena eman da eta kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak ezartzen duena.

Hori dela bide, Ingurune Natural eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— *Uztailaren 11ko 126/2006 Foru Dekretua aldatzea. Bizkaiko Foru Aldundiak, behin betiko desagertu daitezen, egiten duen hiri hondakinen tratamendu zerbitzuari dagokion prezio publikoa aplikatzeari eta beraren erregulazioa garatzeari buruzkoa da foru dekretu hori*

Bizkaiko Foru Aldundiak, behin betiko desagertu daitezen, egiten duen hiri hondakinen tratamendu zerbitzuari dagokion prezio publikoa aplikatzeari eta beraren erregulazioa garatzeari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 11ko 126/2006 Foru Dekretuaren 4. artikulua 1. zenbakia aldatuko da eta honela geratuko da idatzita:

«1. Ordaindu beharreko prezio publikoaren zenbatekoa zerbitzuaren kostu osoa izango da, eta, zehazki, honako hau, tratamenduaren arabera:



- 155,47 euro, BEZik gabe, masan bildu eta amaierako tratamendua jasotzen duten hiri hondakinen tona metrikoko.
- 92,24 euro, BEZik gabe, tona metrikoko, berrerabiltzeko edo birziklitzeko tratamendua jasotzen duten hondakin handien kasuan.
- 73,44 euro, BEZik gabe, tona metrikoko, konposta egiteko instalazioan tratatzen diren hondakin organikoen kasuan.
- 92,47 euro, BEZik gabe, tona metrikoko, berrerabiltzeko prestatzeko tratamendua jasotzen duten etxeko hondakin txikien kasuan.»

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2025ko apirilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bilbon, 2025eko martxoaren 20an.

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Ingurune Naturala eta Nekazaritza
Sustatzeko foru diputatua,
ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA